

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

4.000 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute Iraupen Eskiko XXIX. Eskola Kanpainan

Alli kontseilaria Erronkari Ibarreko Mendi Zentroa joan da jardunaldiaren balantzea egiteko, Nafarroako Gobernuak 565.000 euroekin laguntzen duena

Lunes, 22 de abril de 2013

Guztira 107 ikastetxetako 4.348 pertsonak –4-019 ikasle eta 329 irakasle– eman dute izena ikasturte honetan iraupen-eskiko XXIX. eskola-kanpainan parte hartu ahal izateko; kanpaina hori apirilaren 26an, ostirala, amaituko da hamabi astetako iraupena izan ondoren.

Gizarte Politiken kontseilari Íñigo Allik jarduera horren balantzea egin du Erronkari Ibarreko Mendi Zentrotik. Jarduera hori Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak eta Zaraitzu zein Erronkariko ibarrek antolatu dute. 1,2 milioi euroko aurrekontua izan du, eta 565.000 euro Nafarroako Gobernuak jarri ditu. Aurten [mila](#) pertsona inguru gutxiagok parte hartu du.

Eskiko 29 kanpainatan (1984-2013) guztira 107.703 pertsonak esku hartu dute. Oraingoan, 800 pertsona inguruk egin dute jarduera Zaraitzuko Ibarrean (Otsagabia) eta gainerakoek, Erronkariko Ibarrean (Izaba).

Iraupen-eskia kirol-modalitate modura zuzenean sustatzeaz gain eta naturarekiko begirunearen nahiz ingurumen-hezkuntzaren alde egiteaz gain (bistak interpretazio-zentroetara, adibidez), kanpainak eragin sozioekonomiko aipagarria du ibarretan: biztanleria aktiboaren % 20k elurrarekin harremana du (zuzeneko 127 lanpostu, esaterako: begiraleak, ostatuak...), zeharkako beste lanpostu batzuek gain (autobusak, saltoki



Alli kontseilaria, Erronkari Ibarreko Mendi Zentroan, udal-agintariekin, zentroko eta eski-eskolako kudeatzaileekin eta Gizarte Politiken Departamentuko beste kargu batzuekin.



Ikasleak Aste Zurian.

txikiak, kafetegiak...). Parte-hartzaileen gastu pertsonalak 18 euro ingurukoa da, udalek egindako kalkuluen arabera.

Gainera, arratsaldetan ikasleek zonaldeko kultura eta ohiturei lotutako programatutako zenbait ekintzatan parte hartzen dute. Naturarekiko begirunea sustatzea, ingurunea zaintzea eta herri horiek eguneroko bizimoduan ahalik eta gehien integratzea dagozkien ostatueto elkarbizitzaren bidez, kanpaina horren funtsezko helburuak dira.